

GAZTEAK ENPLEGUA ETA EKINTZAILETZA



Argazkia: Gorka Rubio | FOKU


JOSEBA GARTZIA Ekintzailea

Egun batean, ustekabean, Joseba Gartzia lanik gabe geratu zen. Ezin igarri, ordea, egoera horrek abentura paregabe bati ekitera eramango zuenik. Gaztenpresaren laguntzaz, bere asmoa errealitate bihurtu zuen: Otxandio Hontza-Extrem, natura beteko abentura parkea.

«Zulotik atera eta neure burua berrasmatzeko modu bat bilatu nuen»

Ainhua AROSTEGI | OTXANDIO

2011. urtean, Joseba Gartzia otxandiarrak zurezko egiturak ekoizten zituen enpresa batean egiten zuen lan, jaioteritik hurbil. Enplegu egonkorra zuen, ganorazkoa, «bizitza osorako» omen den horietakoa. Baina, bat-batean, egun batetik bestera, enpresak ateak itxi zituen, alde aurretik abisatu gabe, kudeaketa txar baten ondorioz.

Joseba kale gorrian geratu zen. 42 urte zituen, familia bat, hilero ordaindu beharreko hipoteka... Etorkizuna kolokan zegoen eta garai latz bati egin behar izan zion aurre. Zerbait egin beharra zeukan lehenbailehen. Zailtasunak zailtasun, erabaki garrantzitsuak hartzeko unea zuen, aurrera egitekoa, ausardiaz eta beldur barik. Hura abentura zoragarri baten lehen pausoa izan zen, gaur arte irauten duena, hain zuzen ere.

Josebak primeran gogoratzen ditu zeintzuk izan ziren une erabakigarri haietan pairatutako sentimenduak: beldurra, zalantza, bertigoa... «Ez nekien nola, baina zulotik atera beharra neukan, eta neure burua berrasmatzeko modu bat bilatu nuen». Lantetan igarotako oporraldi baten aldaketarako giltza eman zion. Familiak abentura parke bat bisitatu zuen, eta bertan zeudela, argi bat piztu zen gure protagonistaren bu-



izan zitekeen. Merezi zuen saiatzek. Baina Josebak laguntza behar zuen aurrera egiteko. Bi lagun bazkide sartu ziren, erronka onarturik: Ainara Balantzategi eta Joserra Monjon.

Estreinako urratsa proiektua Otxandio Udalari aurkezteak izan zen. Bertan begi onez ikusi zuten: abentura parkeak aukera ezin hobea eskaintzen zuen herria dinamizatzeko, bisitariak erakartzeko, kalitatezko enplegua sortzeko. Hala ere, bidea ez zen erraza izan. Bizkaian, oso lursail publiko gutxi dago, eta izugarri kosta zitzaion orube egoki bat aurkitzea.

Azkenean, Udalaren laguntzari esker, elkarriketa eta ikerketa asko burutu ondoren, leku apropos bat topatu zuten: Olazarreko basoa. Paraje zoragarri horrek behar zuten guztia eskaintzen zien. Ezin ederragoa izateaz gain, hango pagoen tamainak tramankuluak behar bezala kokatzeko parada ematen zuen.

Hurrengo erronka, berriz, teknika izan zen: Josebak eta bere bazkideek ez zekiten gauza handirik tirolina, aire-egitura edota altuerako jardueretarako segurtasunaz. Heldu berriak ziren mundu horretara. Beraz, berme handiko enpresa espezializatu bat kontratatu zuten, proiektua gauzatzeaz ardura zedin.

Baina beste oztopo bat zegoen oraindik, eta ez edonolakoa, gainera: finantzaketa. Orduan, gertutasuna eta konfiantza zirela medio, Laboral Kutxara jo, eta Gaztenpresa ezagutu zuten. Ekimen horrek laguntza, orientazioa eta babesa ematen dizkie euren negozio propioa sortu nahi duten pertsonen. Prozesu osoan laguntzen die, gertu-gertutik, hasierako ideiatik amaierara arte.

«Eman ziguten laguntza ezinbestekoa izan zen gure ametsa egia bilakatzeko. Guk ez genekien nondik nora hasi eta haiek begiak eta ateak za-

ruan, bizitza erabat eraldatu ko ziona.

Aisialdirako proposamen hura, ingurune naturalari estu lotua, ideia inspiratzailea iruditu zitzaion, gurean ere arrakasta izan zezakeena. Etxera itzultzean, beste modu batez hasi zen bazterrak begiratzen, eta Otxandio aldean antzeko instalaziorik ez zegoela baieztatu zuen.

Horrek bere grina hauspotu zuen. Egitasmoa itxura hartzen hasi zen. «Bai, zergatik ez!», proiektu bideragarria

USURBILGO LANBIDE ESKOLAKO
AURREMATRIKULA
PREMATRÍCULA

MAIATZAREN 5TIK 23RA
DEL 5 AL 23 DE MAYO



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

PRESENTZIALKI
Hartu hitzordua

943 364 600

ONLINE
www.ikasgunea.euskadi.eus

[info+]
www.lhusurbil.eus

**GAZTENPRESAK,
NEGOZIO-PLANA
FINTZEN ETA
ERABAKI
ESTRATEGIKO
HOBEAK HARTZEN
LAGUNTZEAZ
GAIN, 135.000
EUROKO
HASIERAKO
FINANTZAKETA
LORTZEN ERE
LAGUNDU ZIEN.**



GARA

izan zen proiektua abian jar-
tzeko orduan.

Pixkanaka eguneratzen

Hontza-Extrem parkeak 2013ko irailaren 21ean ireki zituen ateak. Harrezkero, pixkanaka-pixkanaka, eguneratzen joan da, behar berriei erantzun egokia ematearren. Jatorrizko egiturak oinarri izaten jarraitzen du, baina tirolina-linea berriak, zailtasun desberdineko ibilbideak eta segurtasun-sistema berri-tzaileak gehitu zaizkie hasierako instalazio haiei. Hiru sortzaileek lehengo ilusio beraz segitzen dute jo eta ke. Hala ere, goi-denboraldian, Aste Santutik udazkenera arte, bost langile gehiago kontratatu ohi dituzte, bisitariek merezi duten arreta ezin hobea emateko.

Josebak bere proiektuan sinetsi izan du beti, baita momentu zailenetan ere, eta etsi gabe jardun du bere ametsaren alde. «Hala da: zuk zeuk zeure ideian sinesten ez baduzu, zu zeu gogotsu eta baikor aritzen ez bazara, gauzak ez dira ongi aterako. Oso une latzak izan dira, jakina, baina merezi izan du, inolako zalan-tzarik gabe»

baldu zizkiguten, gure ipar-
rratza izan ziren baimen ad-
ministratiboen eta arazo lega-
len labirintoan ez galtzeko»,
nabarmendu du Josebak.

Gaztenpresa programaren
bidez, aholkularitza pertsona-
lizatua, eskura zeuden dirula-
guntzei buruzko informazio
zehatza, eta sendotasunez eta

etorkizunari begira ekiteko
prestakuntza espezifikoa jaso
zituzten. Gaztenpresak, nego-
zio-plana fintzen eta erabaki
estrategiko hobeak hartzen

laguntzeaz gain, 135.000 eu-
roko hasierako finantzaketa
lortzen ere lagundu zien. Diru
hori, hiru bazkideek jarri zu-
tenari gehituta, erabakigarria

AMETSETIK ERREALITATERA: BESTE EREDU ARRAKASTATSU BATZUK

A.A.

Laboral Kutxaren Gaztenpresa progra-
ma ezinbesteko lagungarria izan da
Euskal Herriko ekintzaile askorentzat.
Joseba Gartziak babesa eta aholkua aur-
kitu zituen lanik gabe geratzeak bere
burua berrasmatzera behartu zuenean,
eta bere enpresa-abenturak egundoko
arrakasta lortu du. Baina Joseba ez da
bere helburuak bete dituen ekintzaile
bakarra izan. Nokora, Tipi-Tapa edo Ka-
laka jokoak bezalako zenbait enpresa
ere ekimen honen balio handiaren era-
kusegarri dira.

Nokora, jatorrizko kafeetan
espezializatutako kafetegi bitxia, kikara
bakoitza zentzumen bidaia bihurtzeko
grinarekin jaio zen. Hemen tradizioak
bat egiten du berrikuntzarekin, eta
Brasil, Etiopia edota Guatemalako kafe
bereziak eskainzen dizkie bestelako
zerbaiten bila datozen bezero
konformagaitzei. Gaztenpresak
lagundutako egitasmo honek ere
arrakasta handia izan du, eta tokiko
erreferente bilakatu da Bilbo aldean.

Gordexolako Tipi-Tapan, ordea,
dibertsitate funtzionala daukaten
pertsonen bizitza hobetzen dute zaldien
laguntza erabiliz. Zentro honek
hipoterapia eta zaldiketa terapeutiko eta
egokitua eskaintzen ditu, baita familia
eta talde-jarduerak ere, betiere
naturarekiko harreman estua bultzatuz.
Gaztenpresak gizakien eta animalien
ongizatearekin konprometitutako ideia
interesgarri hau gauzatu ahal izateko
prozesua erraztu zuen.

Azkenik, Laudioko Kalaka Jokoak
jolasaren bidez komunikazioa eta
garapena sustatzeko pentsatutako
zurezko jostailuak diseinatu eta
ekoizten ditu, artisau eran. Erakunde,
elkarte edo enpresei zuzenduta, haien
sorkuntzek diseinua, funtzionaltasuna
eta hezkuntza-osagai sendoa uztartzen
dituzte.

Hiru istorio hauek zerbait partekatzen
dute Josebarenarekin: ametsa
errealitate bilakatzeko orduan
Gaztenpresak eskainitako laguntza
ezinbestekoa.

Curso 2025-2026



Grado Superior en Animaciones 3D, Juegos y Entornos Interactivos

ABIERTO PLAZO DE INSCRIPCIÓN

Contacta para más información:

📍 Gabriel Aresti nº3, Barakaldo
(Junto al metro de Bagatza)

☎ 94478 03 88

🌐 www.meatze.es

✉ secretaria@meatze.es

MEATZE
CPES Informática y Gestión
MEATZE S.L. BHIP



Ikasapresa azoka, Lanbide Heziketaren espritu ekintzailearen erakusleihu

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 50 Lanbide Heziketa zentrotako 2.000 ikaslek eta 100 irakaslek baino gehiagok beren enpresa-proiektuak aurkeztu zituzten otsailean Eibarren egindako XIV. Ikasapresa azokan.



Eibarko hiritarrak ere gerturatu ziren Ikasapresa azokara. IREKIA

J.S. | EIBAR

Beste urte batez, Eibarko erdiguneak Ikasapresa azokaren edizio berri bat hartu zuen otsailaren 13an. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Itlent (Euskadiko Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutua) erakundeak antolatu eta Eibarko Udalaren laguntza izan zuen ekimenean, 2.000 ikaslek eta 100 irakaslek

baino gehiagok parte hartu zuten, 410 ikasapresa edo negozio-proiektu aurkeztuz.

Askotariko produktuak eta zerbitzuak aurkeztu ziren; izan ere, gehienak ikasten ari diren lan-arlokoak izaten dira eta irakasle teknikoekin elkar-lanean lantzen dira. Hauek izan ziren nagusiak: kirol jarduera fisikoak, industrialak, irudi pertsonala, ostalaritza eta turismoa, informatika, ko-

munitatearentzako zerbitzuak, arte grafikoak, nekazaritza eta arrantza, zerbitzuak eta farmazia eta parafarmazia, besteak beste.

Proiektu zehatzei dagokierenez, honako ikasapresak aurkeztu ziren, beste batzuen artean: tenperatura autorregulatzen duen egurrezko etxe bat; igeltsuz eta metalezko azkoinez diseinatutako bitxiak; arropa-eskileku elektriko

bat, euria hastean toldo batekin estaltzen dena; mugikortasun urriko pertsonentzako joko robotak; edota esklerosi anizkoitza eta hizketarako arazoak dituzten haurrentzako aisialdi-zentroa.

Inaugurazio ekitaldian izan ziren, besteak beste, Inge Gorostiaga, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zu-

zendaria; Jon Iraola Eibarko alkatea; eta Itlent institutuaren ordezkariak.

Ikasleen erronka

Enpresa txiki bat sortzea eta abian jartzea da Ikasapresak Euskadiko Lanbide Heziketako erdi- eta goi-mailako ikasleei planteatzen dien erronka. Euskadiko LHko eredu metodologikoaren barruan lan egiten da, eta eredu horretan funtsezkoa da lan kolaboratiboa. Ikasapresa topaketa Eibarren egiten da, otsailean, eta, bertan, Euskadiko LHko ikasle-txeek Ikasapresa programaren barruan egindako lan guztia erakusteko aukera izaten dute.

Ikasapresa simulazioa bada ere, eskaintzen diren produktuak edo zerbitzuak errealak dira, eta horrek proiektua modu pragmatikoagoan eta benetakoagoan garatzea ahalbidetzen du, espezialitateko teknologia aurreratuen erabilera eta aplikazioa erraztuz.

Programaren garapen egokirako, funtsezkoa da ikasgelan lantzen diren ideia ekintzaileak ikasle talde bakoitzak ikasten duen lanbide-arloarekin lotuta egotea, horrek berritzaileak izatea eta zikloko irakasle-talde osoa ikasgelan garatzen den jardueran inplikaturik egotea ahalbidetuko duelako.

Horrek guztiak lagundu egiten die ikasleei modu aktiboan parte hartzen, ekintzaileak errealitate sozial eta ekonomikoan duen garrantziaz jabetuz eta beren ibilbide profesionala definitzerakoan berebiziko garrantzia izango duten gaitasunak eskuratuz.

Tolosaldea
Lanbide Heziketa Institutua

@tolosaldea
@TolosaldealH
@TolosaldealH
@tolosaldealhii

aurrematrikula

Maiazak 5etik 23ra

PRESENTZIALKI
Derrigorrezkoa hitzordua hartzea:
www.tolosaldealh.eus
943 651 147

AURREMATRIKULA ONLINE
<https://ikasgunea.euskadi.eus>

Ziklo berriak:

- > Erdi eta goi mailako Kimikagintza
- > Goi mailako Diseinu Industrial
- > Goi mailako Gizarte eta Kirol Animazioa

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAIA

Lanbide Heziketa Sailburuordak

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Vice-Departamento de Formación Profesional

HARROBIA IKASTOLA

ERASMUS, ONDO PASATZEAZ HARAGOKO ESPERIENTZIA



Erasmusera doazen ikasleentzat, beharbada, kanpora joatea ikastera edo lanera parrandan ibiltzeko aitzakia paregabea izan daiteke, beste batzuentzat, agian, sexu-harremanak izateko parada eskaintzen duen programa ere izan daiteke; dena dela, pertsona gehienentzat ikasleen prestakuntza hobetzeko esperientzia paregabea da beste herrialde batera joatea eta bertako hezkuntza-sisteman edo lan-merkatuan murgiltzea. Ikas-zentroentzat ere proiektu komunak finantzatzeko beta eskaintzen duen programa da Erasmus+. Edonola ere, elkartrukeak dakarren harreman-sarea zabaltzea, hizkuntzak ikastea edo ikusmolde aberatsagoak eskuratzeko Europar Batasunaren programaren oinarrietan daude gu guztiontzat, nahiz eta Europar Batasunaren aburuz gehiago ere baden.

Rotterdameko humanista famatuaren izena daraman egitasmoa akronimo bat da, halaber, European Community Action Scheme for Mobility of University Students (Unibertsitateko Ikasleen Mugikortasunerako Europar Batasunaren Ekintza Plana).

Ikasleen elkartrukeak 35 urte baino gehiago daramatza indarrean. Europar Batasunaren instituzioen esanetan, 2021-2017 urteetarako 26.200 miloi euroko aurrekontua esleitu zaio programari. 1987an hasi zenetik, 16 miloi pertsonak baino gehiagok hartu du parte mugikortasun- programan.

Arestian esan bezala, Erasmus zerbait gehiago da; programaren lehentasunak honako hauek dira: inklusibitatea eta aniztasuna, direla funtzio-aniztasuna, direla muga sozialak eta ekonomikoak gaunditzea, dela kulturartekotasuna, besteak beste; eraldaketa digitala, hala nola, praktika onak elkartrukatu, ko-sormena eta esperientazioa; ingurumena eta aldaketa klimatikoaren kontrako borroka, bestela esanda, hazkunde jasangarria, nekazaritzaren garapen jasangarria, karbono-aztarta murriztea, adibidez; bizitza demokratikoan esku hartzea, balio komunak eta konpromiso zibikoa, eta horien baitan pentsamendu kritikoa eta bizitzan zehar ikastea.



35 URTE BAINO GEHIAGOKO IBILBIDEA

Bakarrik 2023an, eta Erasmus+ egitasmoak berak emandako datuen arabera, Europako 84.000 erakundek hartu zuten parte aurkeztutako 32.000 proiektutan, eta 1.300.000 pertsonak hartu zuten parte mugikortasun programetan.

Hori guztia finantzatzeko 4.500 miloi euroko aurrekontua erabili zen. Horietatik 2.299 erakunde Espainiar estatukoak izan ziren, eta hortik zehar ibili ziren pertsonetatik - 100.776 ikasle eta 27.754 langile - Espainiar estatutik kanpora joandakoak.

Dena dela, lanbide heziketa izan da, unibertsitatearekin (27,38%) eta eskolarekin (39,29%) alderatuta, proiektu gutxien aurkezten duena, %17,65 baino ez. Emandako bekei dagokienez, %64,57 unibertsitateetako mugikortasun-proiektuei, %14,26 lanbide heziketakoei eta %14,31 eskoletakoei.

ANIZTASUNA, INKLUSIOA ETA ERALDAKETA DIGITALA

Laburbilduz, topikoen gainetik, Erasmus+ gazteen artean balio unibertsal batzuk sustatu nahi dituen Europar Batasunaren ekimen bat da, non ikas-zentroek elkartrukeak egiten dituzten proiektuak garatzeko, ikasleak hara ta hona ibiltzen diren ikasten edo lanean eta, bide batez, harreman-sareak aberasten dituzte; horrez gain, bizitza osoan gogoan izango dute esperientzia paregabea biziko dute eta, bide batez, ondo pasatuko dute.

LANBIDE HEZIKETA BERRITZAILEA BILBON ETA EUSKARAZ

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA:
Kirol-Instalazioen Irigarritasuna eta Kontzerbazioa

ERDI MAILAKO ZIKLOAK:
Mikroinformatika-Sistemak eta Sareak
Natura Ingurune Gidari lanak eta Aisialdia

GOI MAILAKO ZIKLOAK:
Egokitzapen Fisiko
3D Animazioak, Jokoak eta Ingurune elkarrenergileak
Marketina eta Publizitatea

ESPEZIALIZAZIO-KURTSOA
Bideo-Jokoen eta Errealitate Birtualaren garapena

AURREMATRIKULAK
Maiatzak 5-23

Fp **harrobia**
EUSKADI LANBIDE HEZIKETA

«Kabia» refuerza el ecosistema emprendedor en el ámbito rural

La Fundación HAZI ha puesto en marcha una nueva edición de sesiones de formación especializada, experiencias compartidas y generación de redes de apoyo dirigidas a las personas emprendedoras del ámbito agroalimentario, forestal y rural.

REPORTAJE

J.S. | GASTEIZ

Los Jueves de Emprendimiento nacieron en 2015 como una iniciativa impulsada por el Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco a través HAZI Fundazioa, con el objetivo de fomentar el contacto entre personas emprendedoras, facilitando el intercambio de ideas, la detección de oportunidades y el crecimiento de los proyectos en un entorno colaborativo.

Este año, los Jueves de Emprendimiento regresan con un nuevo itinerario de cinco sesiones presenciales, repartidas por los tres territorios históricos. Cada sesión aborda un tema estratégico para el éxito de los proyectos, combinando inspiración, aprendizaje y dinámicas que refuerzan la mentalidad empresarial.

Así, la primera jornada se llevó a cabo el 27 de marzo en Arkaute de la mano de Maite Salinas Beitzegi, quien disertó sobre la importancia de la salud física, mental y rela-

cional también en el caso de las personas emprendedoras.

Para ello, compartió con los presentes el conocimiento que ha ido acumulando a través de sus tres profesiones: periodista, actriz y health coach. «Porque la salud no es algo exclusivamente físico, sino también emocional, es mental, es salud relacional. Todo eso suma, y si no somos conscientes y no somos capaces de indentificar lo que nos provoca bienestar o malestar, difícilmente podremos dar lo mejor mejor de nosotros mismos», aseguró.

Así, subrayó la importancia de integrar en el día a día tres cuestiones fundamentales como son la alimentación, el descanso y la actividad física. Sobre el descanso, además de un sueño reparador, incidió en la necesidad de realizar «pausas conscientes» durante el día para llevar a cabo respiraciones prolongadas para reducir el estrés, y en cuanto a la actividad física, puso de relieve que «el movimiento es medicina, por biología y por salud mental».

«Si no tenemos tiempo para integrar estas tres cuestio-



Participantes en la primera jornada celebrada el pasado 27 de marzo en Arkaute. HAZI

«KABIA» OFRECE UN ESPACIO PARA FORTALECER LOS PROYECTOS A TRAVÉS DE FORMACIÓN ESPECIALIZADA, EXPERIENCIAS COMPARTIDAS Y GENERACIÓN DE REDES DE APOYO.

nes en nuestro día a día, algo no estamos haciendo bien». Es por ello que recordó a los presentes la posibilidad de delegar, «para desarrollar una inteligencia relacional más adecuada. Hemos venido a esta vida no solo a trabajar, y si emprendemos es porque queremos hacer del mundo un lugar mejor y debemos empezar por nosotras y nosotros», concluyó.

PRÓXIMAS SESIONES

Las jornadas continuarán el 22 de mayo en Bizkaia con la intervención de Susana Torralba y su ponencia «Vender con alma: video storytelling»; el 19 de junio, Gemma Fitol disertará sobre «La fuerza de emprender en comunidad»; el 17 de octubre será el turno de Mai-

der Tomasena con la ponencia «Escribir para vender en la era de la inteligencia artificial» y por último, el 20 de noviembre, se celebrará Kabia Azoka, una jornada colaborativa para activar la conciencia de consumo local.

A lo largo de diez años, los encuentros organizados por la Fundación HAZI se han consolidado como un punto de referencia para el acompañamiento en el proceso emprendedor, proporcionando formación práctica impartida por personas expertas, herramientas clave para afrontar los desafíos del emprendimiento y un espacio de networking donde las personas participantes pueden ampliar su red de contactos y compartir experiencias con quienes enfrentan retos similares.

ATE IREKIAK
Maiatzak 10: 10:30ean
AURREMATRIKULAK
Maiatzean

Oinarritzko Maila / Grado Básico

- Nekazaritzako eta Abeltzaintzako jardueretako Oinarritzko Profesionala. Profesional Básico en Actividades Agropecuarias.

Erdi Maila / Grado Medio

- Elikagalak Elaboratzeko Teknikaria. Técnico/a en Elaboración de productos Alimenticios.
- Lorezaintzako eta Loregintzako Teknikaria. Técnico/a en Jardinería y Floristería.
- Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Produkzio Tekniraria. Técnico/a en Producción Agropecuarias.

Goi Maila / Grado Superior

- Baso eta Natura ingurunea Kudeatzeko Goi-mailako Teknikaria. Técnico/a en Gestión Forestal y del Medio Natural.

Fraisoro eskola

Elbarrena 12, 20159 Zizurkil (Gipuzkoa) • 943 692 162 • www.fraisoroeskola.eus

2025/26
LANBIDE HEZIKETAKO ESKAINTZA

- GOI ETA ERDI MAILAKO ZIKLOAK
- ESPEZIALIZAZIO KURTSOAK

AURREMATRIKULA
Maiatzaren 5etik 23ra

Hazi, hezi, Mekan ikasi!

Tel. 943 748 019
bulegoa@meka.eus

www.meka.eus

Fp

Ya está en marcha una nueva edición del programa Erasmus+ por el que estudiantes vascos de ciclos de Grado Medio y Grado Superior de FP completarán su formación en centros de trabajo de diferentes países europeos.

Becas Erasmus, también para estudiantes de FP

J.S. | BILBO

Varios cientos de estudiantes vascos de FP se han desplazado ya a diferentes países europeos en el marco de Erasmus+, un programa europeo que no solo está dirigido a estudiantes universitarios, sino también a jóvenes que estudian ciclos de Grado Medio y Grado Superior de Formación Profesional.

Durante tres meses, los jóvenes realizarán prácticas duales en empresas relacionadas con su ámbito profesional, lo que les permitirá completar su formación y obtener así el título del ciclo formativo que han estudiado. Estas estancias en las empresas, además, suponen una experiencia muy enriquecedora para el alumnado, ya que van mucho más allá de lo que son las competencias técnico-profesionales del ciclo formativo.

Además, hasta en un 30% de los casos, las empresas les ofrecen continuar como contratados y, para la mayoría, esta estancia en empresas extranjeras supone una motivación extra que les lleva a realizar estudios superiores al regreso.

Estas becas están financiadas por la Unión Europea a



Presentación de la edición 2025 del programa Erasmus+ a los centros públicos de Ikaslan. IREKIA

través del Servicio Español para la Internacionalización de la Educación (SEPIE) y co-financiadas por la Viceconsejería de Formación Profesional del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, que este año cuenta con un presupuesto de 500.000 euros para cubrir la parte del presupuesto que no alcanza la financiación comunitaria.

DURANTE TRES MESES, LOS JÓVENES REALIZARÁN PRÁCTICAS DUALES EN EMPRESAS RELACIONADAS CON SU ÁMBITO PROFESIONAL.

En el programa intervienen también entidades empresariales como Confebask, o financieras, como Rural Kutxa.

Los destinos a los que acuden los jóvenes en el marco del programa Erasmus+ son muy variados, ya que abarcan un total de 16 países: Austria, Bulgaria, Croacia, Dinamarca, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Francia, Grecia,

Hungría, Italia, Lituania, Malta, Polonia, Portugal y República Checa.

Red de centros públicos

En lo que respecta a los centros públicos de FP de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa (Ikaslan), este año son un total de 400 los estudiantes que participan en el programa. Por niveles, 200 proceden de ciclos formativos de Grado Superior, 202 de Grado Medio y 21 de FP Inicial. Según los territorios históricos donde se encuentran los centros en los que estudian en la actualidad, 75 proceden de Araba, 181 de Bizkaia y 167 de Gipuzkoa.

La red de centros públicos de formación profesional de la CAV, Ikaslan, comenzó hace más de veinte años a trabajar en la gestión de proyectos europeos. En este periodo han sido más de 5.000 los alumnos y alumnas de FP de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa los que han tenido la oportunidad de realizar, anteriormente, el módulo de FCT (Formación en el Centro de Trabajo) y ahora en la nueva FP la Dual General, en un país extranjero. Este programa les ha permitido conocer la manera de trabajar en el país europeo de destino, mejorar los conocimientos técnicos y profesionales y mejorar o adquirir una lengua extranjera. Pero no solo eso, también conocer personas de otros países y ampliar su círculo social, desarrollar competencias para la internacionalización o mejorar incluso las perspectivas laborales.

Además de las movilizaciones del alumnado, este programa gestiona también más de 200 movilizaciones para el profesorado, con el fin de que conozcan otros sistemas de FP, amplíen sus redes de colaboración e intercambien innovación metodológica y técnica con centros de FP europeos.



KARDALA
LANBIDE HEZIKETAHO
AKUAKULTURA ESKOLA

Fp
EUSKADI
EUSKAL GOB. EUSKADI

IKASLAN
GIPUZKOA
GIPUZKOA GOB. GIPUZKOA

Akuakulturako goi-mailako teknikaria

Matrikula zaitez!

Maiatzak 5 - 23

☎ 943607137

🌐 www.kardala.eus

✉ komunikazioa@kardala.eus

📷 📺 📺



Mundua, bagoaz.

BANOOOA GO!

Irentsi mundua LABORAL Kutxaren GO! txartelarekin.

EZ du komisiorik Estatu
osoko 10.000 kutxazain
baino gehiagotan*.

EZ du komisiorik,
LABORAL Kutxaren aldetik,
atzerriko kutxazainetan**.

**EZ du
komisiorik** dibisa
aldatzeagatik.

EZ DU KOMISIORIK, EZ HEMEN*, EZ ATZERRIAN**

*Zure probintzian dirua komisiorik gabe ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu; zure probintziaz kanpo, berriz, entitate hauetako kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide.
**LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 14 eta 29 urte bitartekoa (biak barne). Horrez gain, 18 urtetik aurrera nahitaezkoa izango da entitate honetan Bizum aktibatuta izatea.



LABORAL
kutxa